



**2019 OTSAILA - AUZO BATZARRAK**  
**ASAMBLEAS MUNICIPALES - FEBRERO 2019**  
**NEGUA - INVIERNO**

<b>Auzoa</b> Barrio	ERDIGUNEA – ZONA CENTRO	
<b>Data</b> Fecha <b>Ordutegia</b> Horario <b>Lekua</b> Lugar	2019-02-21 19:00 – 21:00 Arraño gelan (Kultura etxea)	
<b>Bertaratuta koak</b> Asistencia	<p><b>*Ordezkaritza politikoa</b> Representación política</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Natxo Urkixo (EH BILDU)</li><li>- Amets Meaza (EH BILDU)</li><li>- Jon Ander Altube (EH BILDU)</li><li>- Maider Basterra (EAJ-PNV)</li></ul> <p><b>*Udal teknikariak</b> Técnicas/os municipales</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Joseba Solaun</li><li>- Asier Goikuria</li><li>- Almudena Fernandez</li><li>-</li></ul> <p><b>*Idazkaria</b> Secretaria/o - <b>Dinamizatzalea</b> Moderador/a</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Mikel Meneses</li></ul> <p><b>*Auzokideak</b> Vecinas/os</p> <ul style="list-style-type: none"><li>-guztira total 26</li><li>-neska 7</li><li>-mutilak 19</li></ul> <p><b>*Kazetariak</b> periodistas</p> <ul style="list-style-type: none"><li>- Marta Peciña (El Correo)</li></ul>	
<b>Gai-zerrenda</b> Orden del día	1- <b>Aurkezpena</b> Presentación 2- <b>Gai orokorrak</b> Cuestiones generales 3- <b>Auzoko gaiak</b> Cuestiones del barrio 4- <b>Galderak</b> Preguntas	
	<b>Euskaraz</b>	<b>Gaztelaniaz</b>
<b>Edukia</b> Contenido	1- <b>Aurkezpena</b>  Alkate-udalburuak bertaratutakoak aurkeztu ditu, hala mahaiko ordezkariak, nola langile teknikariak, eta laburki azaldu du nola bideratuko den saioa.	<b>1- Presentación</b>  Alcalde presenta a los asistentes, tanto los representantes en la mesa como el personal técnico, y hace una breve explicación de cómo va ir dirigida la sesión.



	<p><b>2- Gai orokorrak</b></p> <p><b>GIZARTE POLITIKAK</b> -Pertsona zaharrentzako laguntzari dagokionez, itxaronzerrenda murriztu da eta 155 ke-detektore gehiago instalatu dira, batez ere, 80 urtetik gorako emakumeen etxeetan, haiek baitira egoera ahulenean daudenak. -Enplegu-programak. 28 kontratazio egin dira enplegu programen barruan, lanaldi osoan jarduteko.</p> <p><b>HAZ</b> -Lehenengo aldiz zerbitzua dago egun osoan. Astelehen eta ostegunetan 08:00etatik 19:00etara etengabe. Hasteko, urtebetez izango da, herritarrek nola hartzen duten ikusteko. -Idea da HAZ leihatila bakar bihurtzea.</p> <p><b>ANTZOKIA</b> -Laudion aurreikusita dauden proiektu kulturaletako bat da. Une honetan ideien lehiaketa dago martxan, martxoaren 4a arte. Gero, maiatzaren bukaeran jakingo dugu zein den Alzarrateko antzokirako azken proiektua. 336.501€</p> <p><b>LAMUZA PARKEA</b> -Berretsi egin da bi eraikin birgaitu direla Aldundiaren finantzazioarekin. -Lizitazioa martxan dago eta obrak udan hasiko dira. Kultura Etxe berriaren lehenengo fasea egikarituko da.</p> <p><b>KIROL INSTALAZIOAK</b> - Granja kiroldegia. Oinezkoen irisgarritasunerako proiektua idazketa-fasean dago. Gero, diru-laguntza eskatuko zaio Aldundiari. - Gardea. Bi <u>padel pista berri</u> instalatu dira; asko erabili eta erabiltzen dira.</p>	<p><b>2- Cuestiones generales</b></p> <p><b>POLITICAS SOCIALES</b> -En la ayuda a las personas mayores, se ha reducido la lista de espera, se han instalado 155 detectores de humo más, sobre todo a mujeres de más de 80 años que viven solas ya que son más vulnerables. -Programas de empleo. Se han hecho 28 contrataciones, a jornada completa dentro de programas de empleo.</p> <p><b>HAZ/SAC</b> -Por primera vez se cuenta con el servicio durante todo el día. Lunes y jueves en horario continuado 08:00-19:00. En principio será durante un año para ver la respuesta de la ciudadanía. -La idea es convertir al SAC en una ventanilla única.</p> <p><b>ANTZOKIA</b> -Es uno de los proyectos culturales previstos en Llodio. En este momento se está convocando el concurso de ideas, hasta el 4 de marzo. Luego para finales de mayo se sabrá cuál es el proyecto final para el Antzokia en Alzarrate. 336.501€</p> <p><b>LAMUZA PARKEA</b> -Confirmar que se han rehabilitado dos edificios con financiación foral. -La licitación está en marcha la obra empezará en verano. Se ejecutará la primera fase de la nueva Kultur Etxea.</p> <p><b>INSTALACIONES DEPORTIVAS</b> - Polideportivo la Granja. Se está redactando el proyecto de accesibilidad peatonal. Luego, se planteará la subvención a la Diputación. - Gardea. Se instalaron dos <u>pistas nuevas de pádel</u>, han tenido y tienen mucho uso.</p>
--	---	--



	<p>Arrakasta handia. <u>Hockey kantxa</u>. Kantxako argiztapena aldatu da. Inbertsioa: 55.000€ BEZ barne. <u>Tenis kantxako estalkia</u>. Kantxa estaltzeko proiektua idazten ari dira.</p> <p>Calistenia parkea. Latorro. Berehala hasiko dira obrak.</p> <p>Aretako frontoia. Berotze-instalazioa aldatuko da.</p> <p>Ellakuri. Belar naturala artifizialarekin ordeztu da. Aldagelak egin dira.</p> <p>San Martin. Aldagelak eta instalazio guztiak eraberritzeko proiektua martxan da.</p>	<p>Todo un éxito. La <u>cancha de Hockey</u>. Cambio en la iluminación del campo. Inversión: 55.000€ IVA incl. La cubierta de la <u>cancha de tenis</u>. Se está redactando el proyecto para poder cubrirla.</p> <p>Parque de Calistenia. Latorro. El inicio de las obras es inminente.</p> <p>Frontón de Areta. Cambio en la instalación de calefacción.</p> <p>Ellakuri. Se ha sustituido la hierba natural por hierba artificial. Se han habilitado los vestuarios.</p> <p>San Martín. Se ha iniciado el proyecto de reforma de los vestuarios, y de todas las instalaciones.</p>
	<p><b>3- Auzoko gaiak</b></p> <p>Hurrengo gaiak jorratu dira:</p> <p>Alberto Acheron eraikitzen ari den plaza berria.</p> <p>Zentru guneari dagozkion asfaltatuak: Virgen del Carmen kalea, Nerbioi kalea...</p> <p>Espaloiaren egokitzea eta zebrabideen beharrezkoak.</p> <p>Bidegorrien hobekuntzak.</p> <p>Argiztapenaren hobetzea hainbat puntuetan.</p> <p>Zubiko-Kurajo eta Latorro arteko igarobidearen eraistea.</p> <p>Laudion merkataritza sustatzeko abian</p>	<p><b>3- Cuestiones del barrio</b></p> <p>Se han tratado los siguientes temas:</p> <p>La nueva plaza de Alberto Acero que está en construcción.</p> <p>Los distintos asfaltados que conciernen a la zona centro: Virgen del Carmen, Calle Nervión...</p> <p>El acondicionamiento de aceras y rebajes de pasos de cebra.</p> <p>Las mejoras de los bidegorris.</p> <p>Mejora del alumbrado público en varios puntos.</p> <p>La demolición del paso elevado entre Zubiko-Kurajo y Latorro.</p> <p>Las distintas propuestas llevadas a cabo</p>



	<p>jarri diren ekimenak, esate baterako Udaletxearen fatxada berria edota hutsik dauden lokalen fatxadetan jarri diren biniloak.</p>	<p>para potenciar el comercio en Laudio, como la nueva fachada del ayuntamiento y los vinilos puestos en las fachadas de locales vacíos.</p>
<p><b>Galderak Preguntas</b></p>	<p>1- Lamuza plazako auzokide batek adierazi du atsekabetuta dagoela plaza eraberritzeko 224.000 €-ko proiektua dagoelako 2011ko martxoaren 24az geroztik, Zabala zinegotzi ohiak onetsia, baina oraindik egin gabe. Erantsi du Laura Castresana arduradun ohiarekin izandako bilera guztietan beti jaso zuela erantzun berbera: “ez dago dirurik”. Espero du gaurkoan beste erantzun bat jasotzea, esan duenez, garajea urez betetzen delako eta estolderia arazoak dituztelako. Auzokidearen ustez, egoerak ezin du horrela jarraitu.</p> <p>Jon Ander Altubek azaldu du Udalak dirua badaukala, baina ez gauza guztietarako, eta argitu du 2011n onetsitakoa ez zela obra egitea izan, baizik eta proiektua. Proiektu bat onesteak ez du esan nahi obra berehala egingo denik; uneko lehenetsun menpe dago beti. Orain arte garrantzitsuagotzat jo dituzten beste obra batzuk lehenetsi dituzte. Garajeak iragazgaizteari dagokionez, ez da Udalaren kontua, titulartasun pribatua duten erabilera publikodun espazioak dira, alegia, titulartasun pribatuko garajeak dira eta estalkian plaza publiko bat dago. Gauza batzuetan alde pribatuak hartu beharko luke esku nahitaez.</p> <p>2- Alberto Aceroko auzokide batek galdetu du Alberto Acero oinezkoentzat ipini eta gero autoarekin sartzeko aukera emango ote den erosketak uzteko.</p>	<p>1- Vecino de la plaza Lamuza dice estar consternado por tener un proyecto aprobado para la reforma de la plaza por 224.000€ desde el 24 de marzo de 2011 por el antiguo concejal Zabala que no se ha llegado a acometer. Añade que en cada una de las reuniones mantenidas con la antigua responsable Laura Castresana la respuesta siempre fue la misma: “no hay dinero”. Espera que la respuesta hoy sea otra, porque alega que se inundan los garajes y tienen problemas de alcantarillado y por lo tanto considera que la situación es insostenible.</p> <p>Jon Ander Altube le explica que en el ayuntamiento si hay fondos, pero no para todo, y aclara que lo que se aprobó en 2011 no fue realizar la obra sino el proyecto. El hecho de que se apruebe un proyecto no implica que se vaya a acometer la obra inmediatamente, sino que está sujeto a prioridades según el momento. Hasta ahora han priorizado la ejecución de otras obras que han considerado más importantes. En cuanto a la impermeabilización de los garajes, no atañe al ayuntamiento, son unos espacios de titularidad privada de uso público, es decir son garajes de titularidad privada cuya cubierta es una plaza pública. Hay cuestiones en las que inevitablemente tendría que intervenir la parte privada.</p> <p>2- Vecino de Alberto acero pregunta si una vez peatonalizada Alberto Acero se va a permitir la entrada con el vehículo para dejar las compras domésticas.</p> <p>Jon Ander Altube explica que es una</p>



Jon Ander Altubek azaldu du plaza oinezkoentzat izango dela eta, beraz, ezingo dela autoekin zeharkatu.. Zubiko-Kurajo jarri du adibide gisa. Ametsek erantsi du zamalanetarako eta ibilgailu komertzial edo industrialetarako sarbidea arautuko da. Auzokideak galdetu du ea kalea ireki daitekeen ordu zehatz batzuetan, auzokideek erosketa etxean utzi ahal izateko. Horri dagokionez gobernu taldeko kideek erantzun dute kontrolaezina izango litzatekeela. Erabilera oso mugatuak baino ez dira onartuko, esaterako, anbulantziak, ibilgailu egokituak... Baina lehentasuna da oinezkoentzat izatea.

3- Auzokideak 2 galdera egin ditu: Lehenengoa da ea aurtengo udan leihoak ireki ahalko dituen, Aldaikoerrekako kiratsa dela eta. 4 urte daramatza leihoak ireki ezinik. Eta bigarrena da ea moduren bat dagoen Aldai plazako futbol zelaiko hesi metalikoen zarata arintzeko, auzokideen atsedena eragozten baitu.

Altubek erantzun du erdigunea zaratsua dela berez, eta gaur egun Aldai Loudioko erdigunea da. Udalak bermatu behar duena da gaez zarata handirik ez egotea, eta horretarako kartel batzuk ipini ziren, auzokideek beraiek eskatuta. Hesi metalikoari dagokionez, aldaketaren bideragarritasuna aztertu daiteke. Une horretan, Asier Goikuriak hitza hartu du esateko hesi metalikoa kendu eta sare bat ipini ahalko litzatekeela, baina sareek oso gutxi irauten dutela.

Aldaiko kiratsari dagokionez, Altubek adierazi du 2015eko udan Aldain

plaza que va a ser peatonal y como tal no va a permitir el acceso de turismos al uso. Para ello pone el ejemplo de Zubiko-Kurajo. Amets añade que se va a regular el acceso de cierto tipo de vehículos como carga y descarga de uso comercial o industrial. El vecino replica si no sería posible la apertura de la calle durante ciertas franjas horarias en las cuales los vecinos pudieran descargar sus compras domésticas. Pero en este punto los miembros del equipo de gobierno alegan que sería ingobernable. Se autorizarán usos muy limitados, como entrada de ambulancias, vehículos adaptados...pero la prioridad es que sea de uso peatonal.

3- Vecino tiene 2 preguntas. La primera es si este verano va a poder abrir las ventanas, por el olor del río Aldaikoerreka. Lleva 4 años sin poder abrir las ventanas. Y la segunda es si podrían aliviar de algún modo el ruido que padecen por las vallas metálicas del campo de fútbol en la plaza Aldai que afecta negativamente al descanso de los vecinos.

Altube responde que el centro urbano es más ruidoso per se, y ahora mismo Aldai es el centro de Ludio. Lo que el ayuntamiento tiene que garantizar es que no se produzcan tasas elevadas de ruido por la noche, y para ello se pusieron unos carteles a petición de los propios vecinos. En cuanto a la valla metálica, se puede estudiar la viabilidad de su modificación. En este punto Asier Goikuria interviene para indicar que se podría cambiar la valla metálica por una red, pero la durabilidad de la red es muy corta en el tiempo.

Respecto al hedor de Aldai, Altube indica que en verano del 2015 en Aldai se hizo una obra importante de



saneamendu-obra garrantzitsua bat egin zela eta horren bidez arazoaren zati bat konpondu zela, baina soilik zati bat, agerikoa delako arazoak jarraitzen duela. Motxotekalen saneamenduaren zati bat ordeztu berri dute, eta horrek arazoaren zati bat arintzen laguntzen du, baina arazoa dugu loturekin: eraikinetatik hodi biltzaileetarako loturak ez daude ondo eginda edo ez dira ezagutzen. Eta azkenik, adierazi du Aldai erreka birnaturalizatzeko proiektua dagoela, gaur egun ez baita erreka. Ura ez da ibiltzen, egonean geratzen da, zarama metatzen da... Horrek ere arazoa larriagotzen du. Parkea berreskuratzeko proiektuaren barruan Aldai erreka birnaturalizatzeko proiektua ere badago.

4- Haren esanez, Jose Mardones kaleko 12.eko jabeen erkidegoaren ordezkari gisa datorren herritar batek galdetu du zergatik margotu den lerro horia kale hartako espaloian, linean aparkatzeka eragozten duena.

Asier Goikuriak erantzun dio: Hango auzokideen eskariei jaramon eginez egin zen espaloia, batzuetan ikusten zutelako autoak zituztela aparkatuta atariaren aurrean eta ezin zutela etxetik atera. Espaloia egitean, bideak ez zituen betetzen linean aparkatzeko beharrezkoak diren neurriak. Kalearen beste aldean baterian aparkatuta dauden autoek espazio jakin bat izan behar dute aurrean biratzeko eta maniobra egiteko. Gainera, kale horretan bi norabideko zirkulazioa bermatu behar da eta larrialdietarako ibilgailuak ere sartu behar dute.

5- Herritar batek Zubiko-Kurajo Latorroekin batzen duen trenbidearen zonaldea aipatu du. Esan du oso ahaztua dagoela, sasiz beteta. Ezin da

saneamiento que solucionó parte del problema, pero solo una parte porque es evidente que el mal olor persiste. En Motxotekale se acaba de sustituir parte del saneamiento que también ayuda a mitigar parte del problema, pero tenemos un problema de conexiones: conexiones de edificios a colectores que no están bien hechas o que se desconocen. Y por último señala que hay un proyecto para renaturalizar el arroyo Aldai, porque hoy por hoy no es un río. No circula el agua, esta se estanca, se acumulan basuras... eso también contribuye. Dentro del proyecto de recuperación del parque está el proyecto de renaturalización del Aldai.

4- Un vecino dice venir en representación de la comunidad de propietarios de Jose Mardones 12 y pregunta por qué se ha pintado la raya amarilla en la acera de dicha calle, impidiendo aparcar en línea.

Responde Asier Goikuria: La acera se hizo por petición de los vecinos de los portales de esa zona, que en ocasiones veían que tenían coches aparcados delante del propio portal y no podían salir de casa. Al hacer la acera, el vial no cumple con las medidas adecuadas para que se permita el aparcamiento en línea. Los coches que están aparcados en batería al otro lado de la calle requieren delante un espacio determinado para poder girar y hacer la maniobra. Además, esa calle necesita garantizar la circulación en los 2 sentidos y la entrada de un vehículo de emergencias.

5- Un vecino habla de la zona de las vías cercana al puente que une Zubiko-Kurajo con Latorro. Dice que está muy descuidada, llena de matorrales. No podría negociarse su saneamiento con



Renferekin horren garbiketa adostu? Bestalde, erreka galdetu du, uste duelako dragatu behar dela eta landare batzuk ere kendu behar direla. Eta hirugarren kontua da Zubiko-Kurajoko iturri batek ez duela urik.

Hasteko, iturrien kontuari erantzun zaio. Neguan iturrietako ura eteten da, lantzurdak hodiak izozten dituelako.

Trenbideko zonaldeari dagokionez, Renfek ez du baimenik emango udal langileak hara sartu eta esparrua garbitzeko.

Eta azkenik, ibaiaren gaia. URA Agentzia oso zorrotza da Udalak ibaiaren bidean egin ditzakeen garbitze-lanei dagokienez. Jende gehienak uste du landare gehiegi daudela, baina URAk beste irizpide batzuk dauzka eta eskumenak bereak dira. Une horretan alkateak erantsi du badagoela URA Agentziaren proiektu bat ibaia dragatzeko, Villosa zubiraino iristen dena. Proiektua URAren dirukontsignaren zain dago, baina, dirudienez, gaur egun beste lehentasun batzuk ditu.

6- Zumalakarregi etorbideko 51.eko auzokide batek azaldu du bizi den eraikinaren atzeko aldean sastrakaz beteriko lursail pribatu bat dagoela, eta jabeak ez duela behar bezala mantentzen. Udalari eskatu diote espazio hori garbi mantentzea.

Altubek erantzun du une hauetan espazio hori pribatua dela eta beraz jabeari dagozkiola saneamendu-lanak. Udalaren asmoa da partzela hori eskuratzea, hasiera batean egin behar

Renfe? Y por otro lado, también pregunta por el río, cree que necesita una obra de dragado y que no hubiese tanta vegetación. Y una tercera cuestión, es que cierta fuente de Zubiko-Kurajo no echa agua.

En primer lugar se le responde al tema de las fuentes. En invierno cortan el agua de las fuentes, porque las heladas provocan que se congelen tuberías.

En cuanto a la zona de las vías, Renfe no va a autorizar la entrada de personal del ayuntamiento a limpiar zona de las vías ferroviarias.

Y por último, el tema del río. La agencia vasca del agua URA es muy estricta en cuanto a las labores de limpieza que pueda desarrollar el ayuntamiento en el cauce del río. El criterio mayoritario de la gente es que hay demasiada vegetación pero URA tiene sus criterios y suyos son las competencias. En este punto el alcalde añade que hay un proyecto aprobado por URA para el dragado del río que afecta también al puente de Villosa. Proyecto este que está pendiente de consignación económica por parte de URA, que al parecer hoy por hoy tiene otras prioridades.

6- Vecino de Zumalakarregi 51 explica que detrás del edificio donde vive hay unos terrenos de propiedad privada llenos de maleza, que su propietario no mantiene en correcto estado. Instan al ayuntamiento a mantener limpio ese espacio.

Altube responde que en estos momentos ese espacio es privado y su saneamiento es responsabilidad de su propietario. El ayuntamiento pretende que se le ceda esa parcela, tal y como debería haberse hecho desde el principio, mientras tanto



zenez, baina bitartean harremanetan jarri da jabearekin idatziz eskatzeko partzela behar bezala mantentzeko, noizbehinka landareak moztu eta zarama biltzeko.

7- Herritar batek aipatu egin ditu azoka plazan eraitsitako komunak. Zonaldea abandonatua geratu da; horma bat erdi eraitsita geratu da, butano bonbonak daude han, aire zabalean, eta ez daki beteta edo hutsik dauden.

Altubek azaldu du lehenengo fasea egin dela, horrek komunak eraistea inplikatzan zuela, baina ideia ez dela horrela uztea, jarraitzeko asmoa dago. Bestalde, bonbonak kofradiarenak dira. Eta arratoiak dagokienez, beti egongo dira, hori entzutea inori gustatzen ez zaion arren. Une horretan, auzokideei eskatu die arratoiak ikusten dituztenean esku hartzeko, eta azaldu du Udalak kontratua duela arratoinen aurkako enpresa batekin. Asteartero ibiltzen da enpresa lanean Udalaren kontura, hau da, astean zehar ematen diren abisuetan oinarrituta, enpresari helarazten zaizkiolako arratoi gehien duten lekuetan, habietan etab.

8- Auzokide batek berriro heldu dio Aldai erreko kiratsaren gaiari, agerian utzita haserre dagoela, eta txakurrak ere aipatu ditu. Esan duenez, baliabide asko bideratzen dira herria garbitzeko, baina gero txakurren jabeek ez dute garbitasun hori errespetatzen. Soilik txakurrentzat diren espazioak ireki daitezke?

Ametsek erantzun du: Udalak 400.000 poltsa erosten ditu urtero txakurren jabeek gorozkiak jaso ditzezat. Horrez gain, kanpaina bat egin da postontziz postontzi herritarrei

se ha dirigido por escrito al propietario para decirle que atienda y mantenga en correcto estado su parcela y de vez en cuando se corta la vegetación y se recoge la basura.

7- Vecina habla de los servicios en la plaza de abastos que se han derribado. Esa zona ha quedado abandonada; con una pared a medio tirar, bombonas de butano a la intemperie que desconoce si están llenas o vacías, ratas...

Altube explica que se ha hecho una primera fase, que implicaba el derribo de los servicios, pero la idea no es que el espacio permanezca así, sino que tiene vocación de continuar. Por otro lado las bombonas son de la cofradía. Y en cuanto a las ratas, a nadie le gusta oírlo pero ratas va a haber siempre. En este punto pide a los vecinos que cuando detecten ratas actúen, y explica que el ayuntamiento tiene un contrato con una empresa desratizadora. Todos los martes esa empresa trabaja a cuenta del ayuntamiento de Laudio, es decir, con los partes que se dan durante la semana, estos se remiten a la empresa para que actúen en los focos, nidos etc.

8- Vecina retoma el tema de los olores en el río Aldai, haciendo ostensible su enfado, y también habla de los perros. Dice que se destinan muchos recursos para limpieza urbana, para que luego los dueños de los perros no respeten dicha limpieza. ¿Se podrían delimitar espacios solo para perros?

Responde Amets: El ayuntamiento compra 400.000 bolsas al año para que los propietarios de los perros recojan las heces de estos. Además se buzonea una campaña para concienciar a los vecinos de dónde depositar cada tipo de residuos y se ponen sanciones a los que cometen





azaltzeko non utzi behar den hondakin mota bakoitza. Arauak hausten dituztenak zigortu egiten dira. Txakurrentzako espazioak? Latiarron eta parkean ekimen batzuk egon ziren; seinaleen bidez espazio batzuk gaitu ziren, baina erauzi egin zituzten. Udalak baliabideak eta tresnak ipintzen ditu, baina arazoak bere horretan dirau. Ideiak entzuteko prest dago Udala.

9- Herritar batek Laudioko bide-zonalde bati buruzko hausnarketa egin du. Motxotekalen ibilgailu asko ibiltzen dira ikastetxeetara iristeko bidea delako. Inork errespetatzen ez duen STOP bat dago, eta egoera arriskutsu ugari geratzen dira.

Jon Anderrek erantzun du: Ikastolak ahalegina egin du zirkularren bidez gurasoak ibilgailua gutxiago erabili beharraz sentsibilizatzeko, mundu guztia autoz igo ez dadin. Baina kontua da mundu guztiak erabiltzen duela autoa gauza guztietarako. Oso zaila da zirkulazioa arintzeko konponbidea topatzea.

10- beste auzokide bat Zumalakarregin autoek hartzen duten abiaduraz kexu da, Guardia Zibilaren semaforotik ambulatiora doan zatian, eta proposatu du zebrabide altxatuak edota semaforoak ipintzea arazoa konpontzeko.

Alde batetik, Jon Anderrek adierazi du gaur egun zebrabideak ikusgaiago jartzen saiatzen ari direla. Zebrabide altxatuei dagokienez, adierazi du Arartekoak txosten bat eman zuela zeinetan esan baitzuen zebrabide jasoak ez direla metodorik eraginkorrena ibilgailuen abiadura murrizteko, eta

infracciones. ¿Espacios para perros? En Latiorro y en el parque se tomaron ciertas iniciativas, habilitando unos espacios mediante señales, que más tarde fueron arrancadas de su sitio. El ayuntamiento pone las herramientas y los medios, pero el problema persiste. El ayuntamiento está abierto a escuchar ideas.

9- Un Vecino hace una reflexión acerca de una zona vial de Laudio. En la calle Motxotekale transita mucho vehículo al servir esta de acceso a varios centros educativos. Hay un STOP que no respeta nadie, lo que provoca muchas situaciones de riesgo.

Responde Jon Ander: La ikastola a nivel de circulares ha hecho un esfuerzo para sensibilizar a los padres del uso del coche, de algún modo para que no todo el mundo suba en coche. Pero en la práctica la gente utiliza el coche para todo. Es muy difícil encontrar una solución que consiga mitigar la circulación.

10- Otro vecino se queja por la velocidad a la que circulan los vehículos en Zumalakarregi, en la zona que va desde el semáforo de la Guardia Civil, hasta el ambulatorio, y sugiere que la implantación de pasos elevados o semáforos en esa zona conseguiría solucionar ese problema.

Por un lado Jon Ander señala que a día de hoy se está intentando visibilizar más los pasos de cebra. En cuanto a los pasos elevados, se señala que desde el Ararteko emitieron un informe que decía que los pasos elevados no son el método más eficaz para hacer reducir la velocidad de los vehículos, y que se instaba a dejar de instalarlos, por los inconvenientes que generaba a vehículos



eskatzen zuen gehiago ez egiteko, larrialdietarako ibilgailuak hiri-zonaldeetan ibiltzen direnean eragiten dituzten eragozpenak direla eta.

Bestalde, Asierrek hitza hartu du esateko udaltzainekin mugikortasunaren gaia jorratzeko izandako bileretatik ateratako ondorioen arabera, gaur egun, beste udalerrietan aurkako joera gailentzen ari dela. Alegia, semaforoak eta zebraideak kentzen ari dira hiriguneetatik. Hala ere, kexa jaso da, hiri-mugikortasunari buruzko hurrengo bileretan kontuan har dadin.

11- herritar batek Virgen del Carmen kaleko argiteriaz galdetu du, uste duelako ez dela nahikoa.

Jon Anderrek erantzun du Udalak asfaltatzen dituen zonalde guztietan aplikatzen duen irizpidea dela lehenik asfaltatze lanak bukatzea eta gero argiteria ordezte. Behin bukatuta, argiak aldatuko dira. Berehala izango da hori.

12- Beste herritar batek esan du Ostegieta plazan izugarritzko altuera duten zuhaitzak daudela, eta uste duela zonaldearekin hobeto doan altuera duten zuhaitzekin ordeztu beharko lirartekeela, edo loreontziekin.

Asierrek erantzun du: Ez da hain erabaki erraza. Bere garaian plaza urbanizatu zuenak zuhaitz horiek instalatzea erabaki zuen eta harrezkero mantendu egin dira. Erabaki beharko da zonalde horretarako handiegiak diren, eta, hala bada, moztu eta txikiago batzuekin ordeztu ahalko dira. Erabakia eztabaidatu beharko da, ziur aski, moztea erabakitzen bada, hurrengo

de emergencias en su tránsito por zonas urbanas.

Por otro lado, interviene Asier para decir que, las conclusiones extraídas de las reuniones de movilidad mantenidas con los distintos cuerpos de municipales indican que, hoy por hoy, la tendencia de otros municipios es justo la contraria. Es decir, se están eliminando semáforos y pasos elevados de las zonas urbanas. De todos modos, se recoge la queja para que sea tomada en cuenta para las siguientes reuniones sobre movilidad urbana.

11- Vecina pregunta por la iluminación de un paso de cebrá de la calle Virgen del Carmen, que considera que no está bien visible.

Responde Jon Ander que el criterio tomado por el ayuntamiento en todas las zonas que se asfaltan, es primero acabar los trabajos de asfaltado y después se sustituye la iluminación. Una vez se acabe, tocará sustituir la iluminación. Se hará enseguida.

12- Otro vecino dice que en la plaza Ostegieta hay unos árboles de una altura desmesurada, y cree que deberían ser sustituidos por unos de un tamaño más acorde a la zona donde están, o por maceteros.

Responde Asier: No es una decisión tan fácil. En su día quien urbanizó esa plaza decidió instalar esos árboles y se han ido manteniendo. Habrá que decidir si son demasiado grandes para esa zona, en cuyo caso se podrían talar y sustituir por otros más pequeños. Es una decisión que habrá que debatir, porque seguro que si se decide talarlos, tienen al día siguiente un gran número de quejas a este respecto.



	<p>egunean kexa ugari egongo direlako horrengatik.</p> <p>13- herritar batek Maestro Elorza eta Zubiko-Kurajo kaleez aritu da: Urbanizatu egin da eta ez da zuhaitzik ipini. Galdetu du zonaldeari estetika politagoa emateko zuhaitzak ezin ote diren landatu, halaber, itzala emango luketelako.</p> <p>Asierren erantzuna: Zubiko-Kurajon hainbesteko instalazio-karga dago lur azpian (zarama-pneumatikoa, saneamendu-instalazioak, instalazio elektrikoak...), ezen ezinezkoa baita ezer sartzea. Loreontziak zoladura gainean ipini ziren zuzenean ezinezkoa delako ezer sartzea. Eta Maestro Elorza kalean ez dago zuhaitzik kalean, baina aurrean dagoen Zubiko finkako berdearen konpentsatzen da, zuhaitzak oraindik txikiak diren arren, hazi egingo dira.</p>	<p>13- Una vecina habla sobre las calles Maestro Elorza y Zubiko-Kurajo: Se han urbanizado y no se han puesto árboles. Pregunta si no podrían plantarse árboles que le den una mejor estética a la zona y que ofrezcan algo de sombra.</p> <p>Respuesta de Asier: En Zubiko-Kurajo hay tanta carga de instalaciones (basura neumática, instalaciones de saneamiento, instalaciones eléctricas) en el subsuelo que es imposible meter nada. Las jardineras se pusieron sobre el pavimento directamente porque es imposible meter nada. Y en maestro Elorza no hay arbolado en la propia calle, pero se compensa con el verde de la finca Zubiko de enfrente, que aunque los arboles todavía son pequeños, crecerán.</p>
--	---	--